

ALBADAKAKO KOBLAK

- 1 Parise eta Baiona, orain girade gu horra.
Etxeko jauna kumpanareki, jinko huna deiziela gai huna.
- 2 Etxeko jauna entzun zu, bardin plazer baduzu.
etxe kuaren koblatzeko lijentzia emaguzu.
- 3 Eman badu badugu, eman ezpadugu eztugu.
Eman badu et'ezpadu koblaren ja batugu.
- 4 Hura hun da jateko, erbindolia huntxago.
Etxe hortako etxeko jauna zaldiz elizako.
- 5 Zaldiz elizalako, handik etxera jin denian.
Etxe hortako etxeko jauna zilhar kaideran jariko.
- 6 Etxeko jauna bidean, urhe khana bat eskian.
Erreg'ere mintzeraz liro bere buneta burian.
(hor etxeko jaunari buruz eman diren koblak)

ETXEKO ANDERIANAK

- 7 Etxian eder gerena, etxekandere lerdena.
Zure urheko erhaztunaz eros litezu Baiuna.
- 8 Ardi beltzak axuri, etxekandere lar xuri.
Zu plazala elkhitzen zira printzesa bat udurri.

ZAHARRENAK

- 9 Balbarizko, balbarizko, hurrunean da San Francisko.
Etxe hortako xahartto hori Jesu kristi belhariko.
- 10 Hur on dutan lexarra, zelu goretan izarra.
Etxe hortako xahartto horik zilharrez dizu bizarra.

PRIMIARENA

- 11 Ezpata eijer gerian, buneta gorria burrian.
Etxe hortako hori ezkuntzeko adinian.
- 12 Pimpirinetan, pimpirinetan, etxe hortako primistetan.
Ehun zezen tolera nio prima zure ezteietan.

ETXEKO XEME ETA ETXEK'ANDEREA

- 13 Artzan hoa tzamparri, behi xuri sankhari.
Etxe hortako hori plazan eder dantzari.
- 14 Ophila hun da labeko erre denian jateko.
Etxe hortako hori bi bexuen arteko.
- 15 Sugia dua nigarrez, bere begi nabarrez.
Etxe hortako hori goihen barnen zilharrez.
- 16 Khorotxuka eijer puntatu, khallatuz ere khalkatu.
Etxe hortako hori eijer eta karratu.
- 17 Baratzian bioleta urin hoberik ezpeita.
Etxe hortako hori zeluko izarren pare da.
- 18 Gardabera, gardabera gu baguatza hor behera.
Etxe hortako hori gazte eta alagerra.
- 19 Boja eijer kurkuru, erdietan luskulu.
Etxeko hortako hori pharadusuko ainguru.
- 20 Meza arida emaiten, zenia arrapikatzen.
Etxe hortako ttipitto hori ainguruekin mintzatzen.
- 21 Saratsak eijer lilia, erliak haren lehia.
Etxe hortako ttipitto hori emaren uda lilia.
- 22 Galtza beltzak jauntsirik, zeta berdez bestiturik.

Etxe hortako mundian estu parerik.

ARROTS BAT DENEKO

- 23 Etxian eider bahia, arrots horen nublia.
Horen khoxtuz desira gunuke phitxeraren saria.

URHENTZEKO KOBLAK

- 24 Ez gira huna beharrez ez eta ere aiheres.
Usantxa gatik legia gatik arraprotxein beldurrez.

- 25 Ez dugu nahi axuria, ez eta ere ardia.
Usuatxa gatik, legia gatik, liberako txinkorra.

- 26 Lukainka erdi bat gutixe, oxua ere ahalxe.
Tripot-tto bat lagun ezar eta huak huntsa lisateke.

- 27 Ophil zerra bat gutixe, erdia ere ahalxe.
Oxua emaiten baduzue ziren parerik ez date.

- 28 Oillo beltza habian, bere arrautzen gainian.
Bortha hunetan usatzen duzu hiru dozena aldian.

- 29 Santa Agata andere, aurthen eta beti ere.
Bortha huntara jin girade badiogunez deus ere.

- 30 Etxek'andere zabala, lekhu huneko alhaba.
Bortha huntan sunjatu dugu amuina egile zinela.

- 31 Emaitekoz emazu, heben hai duru gututzu.
Muthil gaztiak gira eta dothe bilha gututzu.

ABERTITZEKUA

- 32 Gure etxean lau ardi, lau ardi sortzi beharik.

Ez gira ez xekula izan orai bezain egarri.

BELTZAK

(32) Gastana hunda taula gei, bai eta ere unkhu gei.
Etxe hortako horik alhorretako khxo gei.

(36) Orasia espeles, hortsak dutu ezurez.
Etxe hortako horek du herakitzen gezurez

(35) Bobina beltza zertako, arropa xahar josteko.
Etxe hortako hori besterik ezteneko.

(36) Xuthonduan ilhinti, hameka edo hama bi.
Etxe hortako hori haietarik handiena uskutik.

ERREMESTIATSIA

(37) Dezagun erremestia etxek'andere nublia.
Zeren borthala jin betzaiku amuina ederrekila.

(38) Ejerki eman duzie, kumpana ere badakizu.
Pharadusian bara deizela xei aingurru haidurru.

(39) Eman duzie eijerki, kumpana ere badaki.
Pharadisuan xarturren zide hamabi aingurrueki

(40) Hurrian eijer arrana, zelu gorrenetan izarra.
Zeluko jinkorrak deiziela behar duzien dohana.

(41) Hur onduetan uhana, zelu goretak ilhanak.
Zelu jinko jauna deizela behar tutziren dohanak.

(42) Tinta zaiku ^{an} mukatu papera ere abantzu.
Nabaskeriarik egin badugu jente hunek pharkatu.

u2

Baratzian belhar hun, gasurko gaia guretzathun.
Orai baguatzie eta jinkuak deizela gai huna.